



## Talo eguna ospatu zen bosgarrenez Leitzan, arrakasta handiz

*Gastronomia, kultura, usadioak eta herri kirolak izan ziren protagonistak atzo Leitzan, Taloaren Egunaren bostgarren edizioan*

**P**lazaolako Partzuergo Turistikoak eta Leitzako Udaletxeak antolatutako ekitaldira ehundaka pertsona gerturatu ziren egunaz disfrutatzera. Goizetik hasita eta bazkalordura arte herriko plaza, mendeetan zehar gure baserrietako oinarrizko elikagaia izan den jaki honen inguruan antolatutako hamaika ekintza eta ikuskizunen eszenatoki bilakatu zen. Azken aldian, ogiak ikaragarritzko konpetentzia egin dio arto irinaz, uraz eta gatzaz egindako opil honi ia desagertzera iritsi arte, horregatik, Plazaola Partzuergo Turistikotik eta Leitzako Udaletxetik egun hau antolatzen da urtero gure amonek belaunaldiz belaunaldi sukaldatu izan duten jaki hau berreskuratu eta promozionatzeko helburuarekin.



Eguna, goizeko 10.00etan hasi zen, zonaldeko Taloegileak diren Villabona eta Saralegik jarritako postuekin. Horietan osagai tradizionalaz betetako taloak eros zitezkeen, hala nola, txistorra, hirugierra, gazta edo txokolatez betetakoak, bai eta ezohiko osagaiez beterikoak ere, gulaz edo onddoz, esate baterako.

Musunzar, Peritza, Txoko, Elostia eta Lekuonberri zonaldeko jatetxeek ere ohiz kanpoko osagaiez eta konbinazio berritzailez betetako taloak egin zituzten, kuskus eta barazkiz, txistorra eta irasagarraz, odolki eta tomateaz, haragi, tomate, gazta, baratxuri, besamel eta tipulaz edo txokolate eta gatzaz, adibidez.



Goizeko 11'00etan Eskualdeko II. Talo Lehiaketa ospatu zen eta horretara apuntatu ziren 5 lehiakedeek euren taloak prestatu zituzten plazan bertan; lehenengo saria (100euro) Joxepa Albizuk eraman zuen; bigarrena (50 euro), Mikaela Zabaletak; eta hirugarrena (25 euro) Ylenia Villabonak.

Familiarentzako pentsatutako egun honetan, txikienek ere disfrutatzeko aukera izan zuten, bai haientzat prestatutako gurdi ibilaldiekin, bai 4-14 urte bitarteko haurrentzat egindako Talo tailerrekin.

Ekintza gastronomiko guzti horietaz gain, eguerdian Herri Kirolerako denbora ere izan zen. Bi txapelketa ospatu ziren, batetik, Euskal Herriko Aizkolari Gazteena, zeinetan Kortxero atera zen garaile 16.44minuturrekin eta bestetik, Sukuntzak irabazitako Nafarroako Gizonezkoen Txinga-Erute Txapelketa.



Eta jarduera guzti horiek ospatzen ziren bitartean, jendez eta baserriko animaliez (antzaraz, txerriz, astoz eta oiloz) gainezka zegoen Leitzako Plazan, erakusketa desberdinak zeuden, lurgintzarako tresnen eta artoarekin zerikusia duten lanabesena eta antzinako ogibideak (sega zorroztea, artoa aletzea...) erakusten zituzten pertsonena. Hori gutxi balitz, artisauen produktu desberdinak bildu ziren bertan ikusi eta erosteko, hala nola, gaztak, eztiak, txokolateak, sagardoa, espartuz egindako produktuak eta garrapinatua.

Ekintza guzti horiekin eta egindako eguraldi paregabearekin, Talo Egunak ikaragarritzko arrakasta izan zuen; hurrengo urtean errepikatzea espero dugun arrakasta.